

**Antzerkia espektro autistaren nahastea duten  
ikasleen hezkuntzan esku-hartzeko baliabide  
pedagogiko gisa**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Pardo Pérez, María.

ZUZENDARIA: Elizalde Estenaga, Amaia.

## **Laburpena**

Espektro autistaren nahastea duten pertsonak, oro har, gizarte-trebetasun gutxi dituzte, eta komunikazio- eta mugimendu-errendimendu txikia. Hori dela eta, ezin dute gainerakoekin arrakastaz erlazionatu. Azterlan honen helburua da antzerkiaren bitartez AEN diagnostikoa duten lau ikasleko talde batekin egindako hezkuntza esku-hartzea eta honen emaitza positiboak plazaratzea, gizarte-, komunikazio- eta motrizitate-trebetasunak hobetzeari dagokionez. Esku-hartzea aurrera eramateko hiru metodologia-mota erabili dira: aurkikuntza gidatua, irakas-giroa eta arazo-ebazpenak. Amaitutakoan, lortutako emaitzak aztertu dira, egindako aurretiko hipotesia kontuan hartuz: antzerki praktikak autismoa duten haurrentzat lagungarriak dira, gizarte-, komunikazio- eta motrizitate-trebetasunak lantzeko.

## **Resumen**

Las personas con trastorno del espectro autista, normalmente, tienen pocas habilidades sociales, y un rendimiento comunicativo y motriz pobre. Es por ello que no pueden relacionarse con éxito con los demás. El objetivo de este estudio es llevar a cabo una intervención con un grupo de cuatro alumnos con diagnóstico de TEA, trabajando las capacidades comunicativas y motrices a través del teatro. Se ha hecho uso de tres tipos de metodologías para llevar a cabo la investigación: descubrimiento guiado, ambientes de aprendizaje y resolución de problemas. Se han analizado los resultados logrados tomando en cuenta la hipótesis previa del trabajo. En esta hipótesis se afirma que las prácticas teatrales ayudan a los niños con autismo a trabajar las habilidades sociales, la comunicación y la motricidad. Por tanto, a través de este trabajo se analizará si el teatro es efectivo para ofrecer una intervención educativa de calidad al alumnado con TEA y conseguir los objetivos propuestos.

## **Abstract**

People with autism spectrum disorder usually have few social skills, and poor communicative and motor performance. That is why they cannot successfully relate to others. The aim of this study is to carry out an intervention with a group of four students diagnosed with ASD, analyzing the communicative and motor capacities through the theater. Three types of methodologies were used to carry out the research: guided discovery, learning environments and problem solving. The results obtained were analyzed and taking into account the previous hypothesis of the work. In this hypothesis it is stated that theatrical practices help children with autism to work social skills, communication and motor skills. Therefore, through this work we will analyze whether the theater is effective to offer a quality educational intervention to students with ASD and achieve the proposed objectives.

## Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Justifikazioa.....	4
3. Marko teorikoa.....	5
3.1 Antzerkia hezkuntzan.....	5
3.1.1 Antzerkia, eskola curriculum eta adimen anitzak.....	5
3.1.2 Antzerki aplikatua, hezkuntza eta AEN duten haurrak.....	8
3.2 Zer da autismoa?.....	12
4. Helburuak.....	14
5. Metodoa.....	15
5.1 Testuingurua eta ikerketaren metodologia orokorra.....	15
5.2 Esku-hartzearen prozedura orokorra.....	16
5.3 Saioak aurrera eramateko erabilitako metodologia.....	17
6. Sekuentzia didaktikoa.....	21
6.1 Partaideak.....	21
6.2 Saioen sekuentziazioa eta landuko diren gaitasunak.....	22
7. Emaitzak.....	25
8. Ondorioak.....	31
9. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	33
10. Erreferentziak.....	36
11. Eranskinak.....	39

## 1. Sarrera

Gaitasun sozialik eza da Autismo Espektoaren Nahastea (AEN) duten haurren zailtasunetako bat, lagun talde bat aurkitzeko edo hari eusteko duten trebezia falta. Horregatik, haur hauen hezkuntza prozesuan gizarte gaitasunen trebakuntzan arreta berezia ipintzea beharrezkoa da (Antón, 2016). Era berean, AEN duten hurrek, beren ezaugarriak direla eta, hainbat mugekin topo egiten dute arte eta jolas jardueretan parte hartzeko, eta hori da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako bazterkeria handieneko arloetako bat. Horiek kontuan hartuta, baloratu behar da antzerkiaren diziplinan parte hartzeak lagundu dezakeela AEN duten pertsonen jokabideak gizartean errazten (Corbett, 2016; Kempe eta Tissot, 2012) eta jarduera artistiko sortzailea garatzen, biak batean.

Gauza jakina da antzerkiak, praktika kultural artistiko gisa, giza esperientziaren alderdiak aztertzen dituela horiek errepresentatuz, gizakiaren pentsamendu eta jokabideetan sakonduz eguneroko bizitzako antzeko egoerei aurre egiteko aukera ematen duela eta garapen pertsonal, sozial eta emozionalean laguntzen duela. Bestalde, antzerki aplikatuaren eremuko jardueran parte hartzen duten pertsonen beste batzuekin harreman desberdinak izan ahal dituzte, eta haien ekintzen ondorioak modu seguruan aurki ditzakete. Gainera fikziozko egoeretan eguneroko arazoak konpontzeko aukera ere ematen du (Sherratt eta Peter, 2002).

AEN duten pertsonen trebetasun sozialak garatzeko antzerki aplikatuaren erabilera egin da dagoeneko, eta esperientzia dokumentatuak daude. Esperientzia horien konplexutasuna eta irismena aldatu egiten dira, baina adibideen artean, hiru programa nagusi egituratu, sistematizatu eta ebaluatu dira: *The Miracle Project*, *The Shakespeare Heartbeat* eta *SENSE Theatre*. *SENSE Theatre*, Neuroscience Endocrinology (SENSE) Theatre esku-hartzeko programa bat ebaluatu zuen. Programa hori espekto autistaren nahastea duten haurren funtzionamendu sozioemozionala hobetzeko eta estresa murrizteko diseinatu zen. AEN zuten zortzi haur garapen-bidean zeuden ikaskideekin elkartu ziren, azken horiek aditu-eredu gisa erabiliz. Neurri neuropsikologikoak, biologikoak eta portaerazkoak ebaluatu ziren pretest-postest diseinuan. Parte-hartzaileek nolabaiteko hobekuntza erakutsi zuten aurpegiaren identifikazioan eta buru-trebetasunen teorian (Corbett, 2011).

Jadanik martxan jarritako ereduari eta testuinguru zehatz bati erreparatuz, lan honetan Gasteizko Vera-Cruz ikastetxean AEN duten hurrekin egiteko esku-hartze bat diseinatu, praktikara ekarri eta lortutako emaitzak aztertu dira. Esku-hartzea 7 eta 9 urte

bitarteko 4 ikaslerekin egin zen, eta astean behin ordubeteko 10 saio programatu ziren, non 4 ikasleek, haien PTak eta nik parte hartu genuen.

Esperientzia honetan erabilitako metodologia aurkikuntza gidatuan, arazoen ebazpenean eta irakas-giroetan oinarritu da. Saioekin hasi aurretik ikasleen irakasleekin batera hiru hobetze-arlo mota zehaztu ziren: gizarte trebetasunak, komunikazioa eta motrizitatea edo jarduera fisikoa. Diseinatutako jardueren bitartez hiru esparru nagusi horiek lantzea eta, beraz, hobetzea da helburu nagusia. Ildo horretatik, ikerketa-mota honen azken helburuak antzerki aplikatuarekin bat egiten du: tartean diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta haien errealitatea hobeto ezagutzea.

Lan honek, egiturari dagokionez, teoriatik praktikarako eta esperimentaziorako ibilbidea islatzen du. Lehenik eta behin, ikergaiaren inguruko marko teoriko bat zedarritu da, hiru ardatzen bueltan: hezkuntza, antzerki aplikatua eta AEN duten haurrak. Hainbat autorek parte hartu dute haur autistei buruzko ikerketetan, hala nola Corbett eta Hartigan, antzerki aplikatuaren bidez. Hala, hezkuntzan aplikatutako antzerkiari buruzko teoriar sakonduko da bereziki, AEN duten haurren heziketari lotuta egindako azterketetan azpimarra eginez. Horren ostean, praktikara eramandako esku-hartzearen nondik norakoak azaldu dira: testuingurua, erabilitako metodologia, jarduerak eta abar. Amaitzeko, ebaluazio programatuen bidez lortutako emaitzak aurkeztu eta aztertu dira, behar diren ondorioak ateraz eta esku-hartzeko proposamena edo hobekuntzak proposatuz.

Emaitza horiek, arestian aipatu bezala, esku-hartzearen hasieran proposatutako hipotesia ebatziko dute. Hipotesi horren arabera, antzerkiaren bidezko esku-hartzeak baliagarri dira espektro autistaren nahastea duten ikasleen gizarte-, komunikazio- eta mugimen-trebetasunak hobetzeko.

## **2. Justifikazioa**

Gradu Amaierako Lan honen gai nagusia dramatizazioa tresna motibatzaile gisa erabiltzean datza, AEN duten pertsonen interakzio sozialeko trebetasunak garatzen laguntzeko, pertsonen arteko harremanak eta haien komunikazioa eta motrizitatea hobetzeko. Gai ildo hori aukeratzeko, hainbat arrazoi hartu dira kontuan, eta horrek hurrengo ataletan zehazten den proposamena planifikatzea, prestatzea eta diseinatzea ekarri du.

Lehenik eta behin, autismoa duen haur batekin izan ditudan hurbileko eta familiarako esperientzia pertsonalak nabarmendu nahi nituzke. Esperientzia horiei esker,

trebetasun, balio eta gaitasunak garatu ahal izan ditut, baita jakinmina ere. Bestela, zaila izango zitzaidan hainbesteko enpatia eskuratzea. Garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea, halaber, irakasle gisa dudana prestakuntzan Garapenaren Nahaste Orokorrak aztertu ditudala, baina nabarmendu nahi nuke AENei buruzko prestakuntza modu orokorrean landu zela, eta nik gehiago jakin nahi nuen. Beraz, gaia erabaki baino lehen, modu sakonagoan informatu nintzen nahaste horri buruz, haren ezaugarriei eta eskolaren testuinguruarekin duen loturari buruz. Bestalde, antzerkia nire lehenengo aukeren artean zegoen, nire familian beti eman baitzaie garrantzi handia arteari eta kulturari, eta txikitan nire hiriko antzerki-talde batean parte hartu nuen. Azkenik, "Practicum III" irakasgaiak aukera eman dit hezkuntza esparruan eta hainbat programa eta zerbitzuren bidez AEN duten pertsonak zuzenean behatzeko eta ezagutzeko. Gasteizko Vera Cruz ikastetxean egindako praktikaldian errealitate profesionala ezagutu eta parte hartu ahal izan dut, eta proposatutako esku-hartzea lau ikaslerekin batera egin ahal izan dut.

Nire hasierako proiektua hezkuntza-proposamen bat besterik ez zen, antzerkiaren bidez hainbat helburu lantzeko. Baina ikastetxean sartu eta irakasleekin hitz egin ondoren, ikasleen egoeraren berri eman zidaten eta ikasle horiekin zerikusia zuen arazo-egoera identifikatu nuen. Arazo horren ardatzak komunikazioa, gizarte-trebetasunak eta mugimendu-alderdiak ziren. Horregatik, lau ikasleen PTarekin batera 10 saioko esku-hartzea diseinatzea eta aurrera eramatea erabaki nuen.

Ilusioa, ahalegina, hobetzeko, berritzeko, ikasteko eta hazteko gogoia, bai pertsonalki bai profesionalki, lagun izan ditut GRAL hau egiterako orduan, eta funtsezko eragile izan dira abentura hau abian jartzeko.

### **3. Marko teorikoa**

Atal honetan biltzen den marko teorikoak bi zutabe nagusi ditu: batetik, antzerkia eta hezkuntzaren binomioa eta, bestetik, AEN duten haurren berezitasunena. Bi ardatz teoriko horiek baliatuz eta Practicum III-an behatutako arazo-egoera konkretuari begira diseinatu eta martxan jarri da esku-hartzea.

#### **3.1. Antzerkia hezkuntzan**

##### **3.1.1. Antzerkia, eskola curriculum eta adimen anitzak**

Antzerkiari alde askotatik begiratu dakioke eta modu askotara uler daiteke. Hezkuntzaren ikuspuntutik ikusita bere alde artistikoa nahiz komertziala alde batera uzten dira, hein handi batean, eta garrantzia gehiago ematen zaio alde pedagogikoari,

ikaskuntza metodo bilakatuz antzerkian parte hartzen duten protagonistentzat. Gisèle Barret-ek (Barret, 1995) aipatzen du egoera pedagogiko honek laguntzen diela ikasleei eta irakasleei espazio- denbora desberdin bat bizitzeko eta elkarbanatzeko .

Euskal Autonomia Erkidegoko markoari dagokionez, antzerkia, Heziberri 2020 (2015) curriculumean, diziplina barneko konpetentzien artean, Konpetentzia Motorrean barneratzen da, besteak beste; gorputz- adierazpenari lotuta, hain zuzen ere. Konpetentzia honen helburu nagusietako bat honako hau da:

Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko. (Heziberri 2020, 707 or.)

Helburuekin batera, konpetentzia motorraren edukiei erreparatuz, 3. eduki multzoak egiten dio erreferentzia gorputz-adierazpenari eta komunikazioari:

3. multzoan (Gorputz-adierazpena eta komunikazioa): gorputzaren bidez adierazi eta komunikatuko dira emozioak, sentimenduak eta ideiak, zenbait teknika baliatuz. Multzo horretako edukiak jolas moduan eta alderdi emozionala landuz bideratuko direnez, lagungarriak izango dira norberak gozatzeko, bai eta aberasgarriak ere. (Heziberri 2020, 710 or.)

Hezkuntzaren markoarekin jarraituz eta diziplina barneko oinarrizko konpetentziez harago, dramatizazioaz ari garenean curriculumaren zenbait oinarrizko zeharkako gaitasunekin lotura estua egin beharra dago. Dramatizazioak ahozko komunikaziorako oinarrizko zeharkako gaitasunak eta portaera batzuk biltzen ditu, elkarrekin komunikazioan erlazionatu eta sostengatzen direnak eta zeharkako oinarrizko gaitasunen eta curriculum arloen bidez garatzen direnak; esaterako, hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia. Bestetik, antzerkiak talde batean parte hartzeko eta elkarrekin jarduteko aukera ematen du, bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak errespetatzen eta asertibitatea landuz. Beraz, elkarbizitzarako zehar konpetentzia modu sakonean lantzen da. Azkenik dramatizazioaren esparruak pertsona bakoitzaren sentimenduak eta pentsamenduak azalarazteko aukera ematen du, haiei buruzko gogoeta sakona eginez eta norberaren burua autoerregulatzen. Honekin guztiz bat dator norbera izaten ikasteko zehar konpetentzia.

Oinarrizko zehar konpetentziei lotuta, Howard Gardner-ek 1983an proposatutako inteligentzia edo adimen anitzekin guztiz bat dator antzerkia oinarri duten esku-hartzeak

eskolan. Gardner-entzat adimena gure burua garatzeko gaitasuna da. Adimena, arlo akademikora ez ezik, adimen guztien konbinazioa ere bada. Kirolean, gorputz adierazpenean, musikan, giza harremanetan, etab. trebea izateak, zoritxarrez, prestakuntza akademikoko programetan kontuan hartzen ez diren gaitasunak eskatzen ditu. Dramatizazioan, Gardner-ek aipatzen dituen bi inteligentzia azpimarratzeko beharra dago: intrapertsonala eta interpertsonala. Adimen intrapertsonala, pertsonaren barruko adimena da, norbera ulertzeko trebetasuna. Pertsona bere indarguneez eta ahultasunez jabetzen da bizitzaren helburuak lortzeko. Lehenik, gure pentsamolde eta sentimenduei buruz hausnartzen eta horiek kontrolatzen laguntzen du, norberaren ideiak, dohainak eta trebetasunak ezagutzen lagunduz, hain zuzen. Bestetik, helburu pertsonalak ezagutzeko gaitasuna da, sentimendu pertsonalak eta erantzun emozionalak kontrolatzekoa. Azkenik norberaren buruarekiko pertzepzio zehatza eraikitzeko eta norbere bizitza antolatu eta zuzentzeko gaitasuna da. Adimen interpertsonalak, berriz, besteak ulertzeko aukera ematen digu. Adimen hau giza harremanak, pertsonetikiko enpatia eta horien motibazio, arrazoi eta emozioak ezagutzeko gaitasunean oinarritzen da. Egunero egiten ditugun jarduera gehienak adimen-mota horren araberakoak dira, pertsona-taldeek osatzen baitituzte eta interakzioa baitute osagai nagusi (Gardner, 2005).

Curriculumaren, hezkuntzaren eta antzerkiaren eremura etorritik, beraz, curriculumaren arabera antzerkiak eta gorputz-adierazpenak modu ludikoan garatzen dute dimentsio sozioemozionala. Nor bere burua eta norberaren emozioak ezagutu eta ulertzetik abiatuta, besteen sentimenduak ezagutu eta ulertzerira iristen gara, eta, azkenik, harremanak eta elkar ulertzea lortzen dugu, helburu komun bat lortzeko eta sortzen diren gatazkak gainditzeko. Honekin batera, konpetentzia motorrak eta aipatutako zeharkako konpetentziek gaitasun artistikoari laguntzen diote adierazpen hauen bidez: joko dramatikoak, inprobisazioak, mimoa, dantza sortzailea, arte-sorkuntza, antzerki-jokoa, etab. Horiek guztiek adierazpen kulturalak eta artistikoak ulertzen laguntzen dute, eta balioa ematen diete, kulturen arteko elkarrizketa errazten dute, haurrek adierazpen- eta komunikazio-baliabide berriak bereganatzen dituztelarik.

Antzerkiaren helburu garrantzitsuena, jarduera artistiko-ekonomiko gisa, emaitza izan ohi da, baina hezkuntzaren ikuspuntutik ikusita **prozesua** da garrantzitsuena, nahiz eta emaitza final artistiko-ludikoak lortzen diren. Dramatizazioak hainbat abantaila eskaintzen ditu haur eta gazteen hezkuntza prozesurako. Alde batetik haurtzararen garapen integralean laguntzen du, autonomia eta pertsonalitatea lantzeko. Bestetik, haurren behar afektibo-sozialak eta adierazpenezkoak lantzeko tresna da, eraikitzen ari



diren emaitzaren protagonista sentitzen direlako. Horrenbestez, emaitza horren jabeak sentituz beste edozein jolasek emango liekeenarekiko kualitatiboki ezberdina den dibertsio eta asebetetze bat ematen die.

Eskoletan landu diren hainbat antzerki praktikek egiaztatzen dute antzerkiak umeei bidea eskaintzen diela mundua ezagutzeko, ikertzeko eta moldatzeko eta haurrek, bide honetan, haien pertsonalitatea lantzen ikasten dute. Antzerkia eta hezkuntza elkarrekin lantzean pertsonen edo, kasu honetan, haurren eraketa integrala landuko da (Eines eta Mantovani, 2008). Era berean, irakaskuntza antzerkiaren bitartez lantzeak metodologia berri bat eskaintzen du irakasleentzat, aukera ematen duena teoriaren eta errealitatearen arteko loturak eratzeke (Lewin, 1946).

Laburbilduz, antzerkia haur eta gazteen hezkuntza prozesurako baliabide interesgarria da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak ere barne biltzen du praktika didaktiko gisa. Oinarri horietatik abiatzen da antzerkiaren praktika artistiko-kulturalaren eta eskolaren batera gunea, eta praktika artistiko bat hezkuntza formalaren baliabide hezitzaile bilakatzen da. Praktika horrek, jakina, jakintza arlo berezitu bat eskatzen du: hezkuntzan aplikatutako antzerkiaz ari gara.

### **3.1.2. Antzerki aplikatua, hezkuntza eta AEN duten haurrak**

Aisiarekin lotutako praktika artistiko-ekonomikoaz harago, bada antzerki aplikatua deritzon eremua, beste agertoki batzuetan erabiltzen den eta bestelako helburu berezituak dituen antzerkiarena. Antzerki praktika hau oso desberdina da, dimentsio pertsonal edo sozialen batean gabeziak dituzten gizabanako edo kolektiboek laguntzera bideratuta baitago; hau da, ez da purua, aplikatua baizik (Motos eta Ferrandis, 2015), eta arazo-egoera jakin batean esku-hartzea du helburu.

Antzerkiak eta arteak, oro har, lantzen ari garen horretan parte hartzeko aukera ematen digu, bai parte-hartzaile gisa, bai ikusle gisa, eta horrek norbanakoaren gozamina dakar. Hori da antzerki aplikatuaren helburua edo funtsa: eremu pertsonal eta sozialean aldaketak sortzea eta sustatzea, ekintzetatik eta gogoetatik abiatuta, bai hezkuntza formalean edo ez-formalean, gizarte-ekintzan eta psikoterapian. Antzerki aplikatuak praktikatik ezagutza kritikoa sortzen duen tresna behar du izan, horrela errespetua, berdintasuna eta elkartasuna bezalako baloreak landuz, arte hezkuntza-gaitasunaren bidez.

Antzerki aplikatuak bizitzako hainbat arlo lantzeko aukera eskaintzen du, Robert Landy-k aipatzen duen bezala (2012, 130 or.) “el teatro aplicado es una forma híbrida y puede ser conceptualizada como teatro y algo más”. Horrek adierazten digu antzerki

mota honen ezaugarri bereizgarria dela giza jardueran eragiteko nahia, komunitateko kideek konpondu beharreko gai edo arazo errealetan esku-hartzekoa. Ildo beretik, beste zenbait adituren iritziz, Tim Prentky edo Sheila Preston adibidez, antzerki praktika hauek jende arruntaz eta haien kontakizunez, tokiko gai eta lehentasunez arduratzen dira; helburua da munduan antzerki-diskurtsotik kanpo aldaketak egitea; izan ere, antzerki aplikatua aplikatzen den kasu askotan ez dago ikuslerik, soilik parte-hartzaileak. Edo, egokiago formulatuta, kasu askotan dramatizazioaren parte-hartzaileak eta ikusleak bat eta bakarra dira, norbera delarik norbere buruaren eta taldearen behatzaile.

Antzerki aplikatua hiru ezaugarri oinarritzen dute: intentzionalitatea, hibridazioa eta alteritatea (Motos eta Ferrandis, 2015).

- **Intentzionalitatea:** giza jardueran eragitea eta komunitate bateko kideek konpondu beharreko gaiak eta arazoak planteatzea (aldaketa).
- **Hibridazioa:** antzerkia eta bizitzako beste hainbat arlo uztartzea (diziplina arteko praktika).
- **Alteritatea:** bestea ardatz izatea, adibidez gizabanakoak, komunitateak eta gizarteak (esku-hartzeko programak).

Antzerki aplikatuan atal bakoitzak (estiloa, dramaturgia, etab.) bere funtsezko garrantzia dauka esku-hartze prozesuari berari begira; horregatik, ekoizleek kontuan izan behar dute zenbat eta hobe izan ikuskizunaren eraikuntza dramatikoa eta estetikoa, orduan eta hobeto beteko direla horrekin lortu nahi diren helburuak.

Bestalde, antzerki mota hau lau "lurren" handitan bana dezakegu, bere helburua hobeto ulertzeko. Lehena **paisaia** da, hezkuntza formalaren esparruan gertatzen den aldaketa, curriculumean eta curriculumetik kanpo. Bigarrena **gizarte-aldaketaren lurren** da, hau da, estrategia dramatikoaren espazioa esku-hartze soziopolitiko gisa. Hirugarrena **aldaketa pertsonalaren eta kolektiboaren lurren** da, psikoterapiako estrategia dramatikoaren gunea ikaskuntza sozioemozional gisa. Azkenik, **aldaketa korporatiboaren eta prestakuntzaren lurren**, ikaskuntzarako eta hobekuntza profesionalerako estrategia dramatikoaren lurren, hain zuzen ere (Motos eta Ferrandis, data). Laferriere eta Motosek azaltzen digute antzerkia bost "C-en" espazioa dela "cuerpo, corazón, cerebro, cultura y creatividad": lehenik zentzumenekin (gorputza) erreakzionatu behar da, ondoren mugimendu eta emozioekin (bihotza), hausnarketa eta ezagutzarekin (garuna) eta, amaitzeko, kultura-eduki batzuei buruz, testuinguru soziokultural jakin baten (kultura) ondareari buruz. Eta hori guztia sormen-giroan oinarrituta (Motos eta Ferrandis, 2015). Hala, estrategia dramatikoaren bidez, aldaketaren beharrez kontzientziatzeko eta hobetzeko aukerak bilatzeko lan egiten da.

Gakoa, beraz, gizabanakoak eta taldeak aurreko egoera batetik (okerragoa) egoera berri batera (birtualki hobea) pasatzen saiatzea da, hobekuntzarako transformazioa, alegia (Motos eta Ferrandis, 2015).

Aurrekoarekin loturan, Philip Taylor-ek (2003) antzerki aplikatua azaltzeko zortzi printzipio ezarri zituen:

- Antzerki aplikatua ikerketa bat da. Bere lan metodoa da gai zehatzak testuinguru zehatzetan ikertzea eta testuinguru desberdin batean beste partikular bati aplikatzea.

- Antzerki aplikatuak asmoa du pertsonen pairatzen dituzten egoerei (bazterketa, sufrimendua edo bazterketa) aurre egiteko aldaketa alternatibak bilatzeko edo taldeei ahotsa emateko.

- Antzerki aplikatuak narrazio posible batzuk planteatzen ditu alternatiba gisa eta horiek aldaketaren itxaropena eta pedagogia askatzaileak bultzatzen ditu. Helburua dinamizatzea da.

- Antzerki aplikatua zereginetara bideratuta dago. Ekintzara bideratutako ekintza/hausnarketa da haren eremua.

- Antzerki aplikatuak dilemak sortzen ditu. Ikuskizun eta jarduerak ez dira erantzun zehatzak ematen saiatzen, baizik eta gizabanako edo talde bakoitzak bere egoera ez oso zehatzerako balio dutenak aurkitu behar ditu.

- Antzerki aplikatuak etorkizunari buruz galdetzen du. Pertsonen eta kolektiboek jatorrian berea dena aurki dezaten nahi du.

- Antzerki aplikatua baliabide estetikoak da; hain zuzen, errealitatea ezagutzeko modu bat da.

- Antzerki aplikatuak komunitateei ez ezik, gizabanakoei edo taldeei ere ematen die ahotsa.

Antzerkia esku-hartze tresna bat da gizarte trebetasunak lantzeko: komunikazio bideak irekitzeko aukera ematen du, sozializazioa eta norberaren ezagutza bultzatzeko. Antzerkian hurrek eguneroko bizitzako bizipenak dituzte, helburuak, pasadizoak eta fantasiak, entretenitzeko eta hezteko uztartzen direnak. Sormani, Alvarado eta Suarez-en arabera (2004, 10 or.), antzerkia haurra artearen munduarekin lotzen duen modu berehalakoa eta atsegina da, eta sentsibiltate estetikoaren, islapenaren, hunkitzeko,

barre egiteko, negar egiteko eta bizitzako hainbat ikuspegi ulertzeko gaitasunaren atea irekitzen dizkio.

Beraz, hezkuntzaren esparruari begira, tresna horrek onura ugari eskaintzen ditu, eta horien artean Perez-ek (2009, 5 or.) hauek nabarmentzen ditu:

- Haurren autoestimua eta segurtasuna handitzen ditu, bere emozioak ezagutuz eta erregulatuz.
- Haurren sozializazioari buruzko laguntza, batez ere komunikatzeko zailtasunak dituzten kasuetan.
- Ikasleari hitzez besteko seinale motak egoki erabiltzeko eta haietaz jabetzeko aukera ematen dioten gaitasunak garatzea.
- Ikaskuntza kooperatiboa.
- Balioak transmititu eta irakastea.
- Hausnarketan interesak sortzea eta, hartara, pentsamenduaren erabilera motibatzea.
- Sormena eta irudimena sustatzea.
- Hurrei zentzumen guztiak erabiltzen laguntzea.
- Eskolako lanak indartzea, hala nola irakurketa eta literatura.
- Arreta hobetzen laguntzea.

Santosen arabera (2007), antzerki-irakaskuntzan ikasteko eta irakasteko arazo konplexu eta zaila konpondu behar dugu, irakasleak ikaslearengan sinetsi behar du, kontua ez da kritikatzeko edo erreprimitzea, alderantziz baizik: ezagutzen ez duen guztia ateratzea, ikaskuntza motibatzen eta eragiten duten jarduera, joko eta eszenatokien bidez. Irakasleak bere aukera onenak aurkitu behar ditu, eta, are gehiago, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzat., Bakoitzak bere ezaugarriak eta nortasuna dituenek, bere indarguneak eta ahulguneak ezagutu behar ditugu, ikasle bakoitzarekin proposatutako emaitzak indartzeko eta lortzeko.

Ildo honetatik, zenbait ikerketak berresten dute antzerkia eraginkorra dela hezkuntza premia bereziren bat duten haurren gizarte trebetasunak hobetzeko. Corbett-ek eta bestek (2011) ikerketa bat egin zuten, AEN zuten zortzi haurrekin eta garapen tipikoa zuten zortzi haurrekin. Horiek elkartu egin ziren, eta garapen tipikoa zuten haurrak eredu adituak ziren, AEN zuten hurrei laguntzen zietenak, funtzionamendu

sozioemozionalean hobekuntza lortuz, modelatua, bideoa eta antzerki musikala bezalako teknikei esker. Hartigan-ek (2012), berriz, antzerkiarekin lotutako programa bat diseinatu zuen. Kasu horretan, inprobisazio jokoak eta gizarte trebetasunak garatzeko ariketak egin ziren. Azterlanaren autorearen arabera, emaitzak ere oso positiboak izan ziren, hainbestera non haur “horietako askok lehen aldiz egin zituzten lagunak” (Hartigan, 2012, 31 or.).

Azkenik, Corbett-ek bere lanean (2014) esku-hartze intentsiboa egin zuen udako kanpamendu batean. Emaitzak ere positiboak izan ziren, AEN zuten haurren oinarrizko gabezia sozialak hobetu egin baitziren. Corbett-ek (2014) ikerketa-ildo horretan jarraitzea proposatzen du, tratamenduaren iraupenarekiko eta bikoteen arteko eraginkortasuna neurtzeko.

### **3.2. Zer da autismoa?**

Autismoaren Espektroko Nahasteak (AEN) neuro-garapenaren nahasteak dira. Zehazki, nerbio-sistema zentralaren heltze prozesuarekin lotuta dauden funtzioen garapeneko nahasteak dira, haurtzaroan hasten direnak eta bilakaera desberdina dutenak kasu bakoitzean. Hala ere, autismoa haurtzaroan hasten den arren, ez da haurtzaroari soilik eragiten dion nahaste bat, garapenari eragiten dion nahastea baizik, eta, beraz, adin guztietan eraginez (Palacios, Marchesi eta Coll, 1990).

Nahaste hauek hainbat arlotan eragin ditzakete zailtasunak, hala nola, interakzio sozialean, komunikazioan (berbalean eta ez berbalean) eta jardueraren patroia errepikakorrean, ohiturak hartzean eta irudimen sozialean.

Esan bezala, subjektu bakoitzarengan bilakaera desberdina duen nahastea da hau, hiru mailatan bereizten dena, larritasunaren arabera:

1. Laguntza oso handiak behar dituzten pertsonekin identifikatzen dena

Maila honetan, oso gaitasun gutxi dute erantzuteko nahiz aurrea hartzeko erlazionatzeko orduan, eta modu bitxian hurbiltzen dira beste pertsona batzuegana. Jokabide errepikakorrak eta murriztaileak dituzte, eguneroko funtzionamendua eragozten dutenak.

2. Laguntza handiak behar dituzten pertsonekin identifikatzen dena

Kasu honetan, AENak dituzten pertsonak zailtasun handiak dituzte ahozko komunikaziorako eta baita ere ahozkoa ez denerako, eta gainera, interesatzen zaienarekin bakarrik harremantzen dira.

### 3. Laguntzak behar dituzten pertsonekin identifikatzen dena

AENen hirugarren mailan sartzen dira zailtasunak dituztenak laguntzarik gabe elkarreraginean hasteko eta jardueraz aldatzeko edo antolatzeko.

Hala ere, kontuan hartu behar da funtzionamendua aldatu egiten dela bizitzan zehar, edozein pertsonarengan gertatzen den bezala. Horregatik, laguntzak pertsona bakoitzaren uneari egokitu behar zaizkio bere bizi-zikloan zehar (Apnabi-Autismo Bizkaia).

Autismoa maila ezberdinetan ematen dela jakinda, orokorrean eta momentu honetan garatzekoa den konpetentzia motorrari dagokionez ematen diren zailtasunen eta urritasunen artean nabarmengarrienak arreta mantentzeko zailtasuna eta irakaslearenganako zain egotearen jarrera da, iraganeko esperientzietatik ikasteko zailtasunarekin batera. Honen aurrean irakasle moduan arreta berezia jarri behar dugu haur hauek azalpenekiko arreta mantentzen eta geldirik egoten ikasi dezaten. Horretarako, jarduera muskular tonikoa eta garun jarduera tonikoa erlazionatuta daudela jakinda, lehenengo honetan jardutearen ondorioz arreta prozesuan ere esku-hartu ahal izango da (Fernández eta Vázquez, 2010).

Azpmarratzekoa den beste ezaugarri orokorra da arlo honetan erdigunea den konpetentzia motorraren garapenarekin zuzen erlazionaturik doan mugimenduzko oinarrizko nozioen gabezia; hots, gaitasun motorretan zailtasunak. Gabezia hau leuntzeko gorputz eskema eta espazio eta denboraren pertzepzioaren lanketarekin hastea gomendagarria da koordinazio dinamiko orokorra eta oreka gaitasunen aurrean lehentasuna hartuz (Fernández eta Vázquez, 2010).

Objektuen inguruko ezagutzarako lekua uztea ere oso lagungarria da; izan ere, haur hauek objektuen itxuren, koloreen eta dimentsioen ezagutza kostata lortu egiten dute eta hobetzera begira hauetan enfasia jartzea oso lagungarria da. Honekin lotuta, espazio eta denboraren pertzepzioaren garapena zehazki lantzea ere garrantzi handiko alderdia da, autismoa duten haurrek beren ardatzaren inguruan korrika egiten baitute, antolaketa espazial falta arrazoi. Horregatik saiatu behar gara kiroldegi edota

gimnasioaren elementuen inguruko erreferentzia puntuak haiek zehatz ditzaten (Fernández eta Vázquez, 2010).

Amaitzeko, azpimarratzekoa den beste ezaugarri orokorra da pentsamendu bisuala; hau da, irudiak oso ondo prozesatzeko gaitasuna edo abilezia. Horregatik, piktogramak hizkuntza areagotzaileak dira eurentzat. Piktograma hauek arau batzuetan oinarritu behar dira, bertan plazaratzen den informazioa koherentea eta zehatza izan dadin. Letra forma, tamaina eta kolore bera jarraitu behar dute eta informazio zuzena ematen duten irudiak erabili behar dituzte. Gainera, piktograma horiek aukera eman behar dute elkarren artean lotzeko eta zentzuzko esaldiak eratzeko (Cinfa).

Marko teoriko honetan zehar antzerkiak haur eta gazteen hezkuntzari dakartzkion abantailak zein diren aztertu da, eta EAN duten haurren ezaugarriei erreparatuz nahiz jadanik praktikara eraman diren ikerketen emaitza positiboa ikusita, antzerki praktikaren lerro aplikatua oso emankorra izan litekeela dirudi. Antzerkiari esker, eremu horretan gabeziak dituzten haurren trebetasun eta elkarreragin sozialak hobetu ditzakegu, EAEko curriculumarekin erabat bat datozen gaitasun, eduki eta helburu pedagogikoak landuz. Antzerkiaren bidez, gainera, zenbait teknika erabil daitezke ikasleak motibatuzko, eta hori oso mesedegarria da, eta are gehiago, arreta mantentzeko gabezia duten haurrak badira.

#### **4. Helburuak**

Lehenago aipatutako ikerketetan eta Practicum III-ko behaketan oinarrituta, antzerki aplikatua erabiliz 10 saio diseinatu eta praktikara ekarri dira ikerketa honetan. Hain zuzen ere, ikerketa AEN diagnostikoa duten lau ikasleekin eraman zen aurrera. Antzerkiaren bidez, oinarrizko zehar konpetentziekin eta diziplina barneko konpetentzia motorrekin lotutako trebetasunen lanketa uztartu nahi izan da. Hezkuntza formalean zein ez formalean lantzen diren gaitasun-eremuak dira (komunikazioa, gizarte trebetasunak eta jarduera fisikoa), une bakoitzean zer sentitzen denaren identifikazioarekin eta sentimendu horien aurrean nola jokutzen denaren kontzientziarekin lotutakoak, besteak beste, enpatizatze eta munduarekin arrakastaz erlazionatzeko trebeziak.

Esku-hartze honen helburu nagusia da AENak dauzkaten haur talde batek, elkarrekintzan arituz, beste adierazpen modu batzuk badirela esperimendatzea eta modu horiek ezagutzea, besteak beste, adierazten dutena interpretatzen eta ulertzen ikastearekin batera. Azken batean, helburu nagusia da gorputz adierazpenari bereziki erreparatzen dion antzerki praktikaren bidez haurren harremanetarako edo sozializatorako heziketan

laguntzea, adimen intrapertsonala nahiz interpertsonala landuz. Esku-hartzearekin berariaz landuko diren hiru garapen eremu nagusiak gizarte-, komunikazio- eta motrizitate-trebetasunenak dira.

Jarraian aurkeztuko direnak helburu zehatzagoak dira, saioetan proposatutako jardueren bidez garatuko direnak:

- Ezaugarri komunak dituzten gazteen arteko topagune erlaxatu eta ludikoa sortzea, kohesioa eta talde-lana sustatuz, laguntza emozionala eskainiz eta autoestimua hobetuz.
- Elkarreragin sozialerako trebetasunak ezagutu eta garatzea.
- Antzerki-jardueretik eta talde bateko kide izatearekiko motibazioa areagotzea, interes guneak handitzeko.
- Sormena eta irudimena bultzatzea.
- Jarrera asertiboak garatzea: arazoak konpontzeko, haien eskubideak defendatzeko eta erabakiak hartzeko gai izatea.
- Enpatiaren bidez emozioen ulermena eta adierazpena lantzea.
- Erlaxatzen eta arnasa egoki hartzen ikastea, norberaren arnasketaz jabetuz.
- Protagonista izango diren ikuskizuna antolatzea, bai azken emanaldian, bai prozesua prestatzean, eta dramaturgia zer gairi buruz egingo den erabakitzea.
- Gorputza gorputz-adierazpeneko ariketen bidez lantzea, gorputza erlaxatzeko eta haren bidez komunikatzea lortzeko, mugimen-gaitasunak handituz eta keinua eta mugimendua ulertuz.

## **5. Metodoa**

### **5. 1 Testuingurua eta ikerketaren metodologia orokorra**

Lan hau garatzeko emandako lehen pausoa gaiaren hautaketa izan zen: eskola antzerkiarena, hain zuzen ere. Baina Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Lehen Hezkuntzako Graduaren azken urtea da eta maila honetan Practicum III-a gauzatzen da. Gasteizko Vera Cruz ikastetxean egindako praktikaldian AENak dituzten haur talde bat zegoen, eta eskolan antzerkia garatzeak dituen abantaila buruzko informazio asko bilatu ondoren, antzerkia AEN duten haurrak gizarteratzeko eta haien hezkuntza prozesuan laguntzeko oso metodo ona zela ikusi nuen. Orduan sortu zen haur horiek dauzkaten zailtasunek suposatzen zuten arazo-egoera konkretuari antzerki jardueraren bidez aurre egitearen ideia. Beraz, lan konkretu honen abiapuntua Practicum III-aren testuinguruan egindako behaketa da.



Gai zehatza hautatutakoan, dokumentazioaren faseari heldu zitzaion EAEko curriculumaz aztertu, hezkuntzan aplikatutako antzerkiari buruzko teoria aztertu eta haur autistekin beste eskola batzuetan egindako ikerketa eta prozedura askoren berri jaso ondoren, sekuentzia didaktiko bat diseinatzea eta martxan jartzea erabaki zen. Vera Cruz ikastetxean, ikasleen tutoreekin eta Gorputz Hezkuntzako irakasleekin hitz egin ondoren, ikusi zen arazo egoera bat planteatzen zutela ikaslearen gizarte-trebetasunari, komunikazioari eta motrizitateari dagokienez. Horregatik, ikasleen tutore eta familiakoekin hitz egin ondoren, autismoa duten hurrekin lan egin eta hauen hezkuntza prozesua laguntzeko jarduerak diseinatzeko nahiz martxan jartzeko erabakia hartu zen.

Azkenik, jarduera didaktikoen arrakasta ebaluatzeko alde aurretik diseinatutako tresnek emandako emaitzak aztertu dira. Emaitzen analisitik ondorioak atera eta etorkizunerako lan ildoak aztertu dira.

## **5. 2 Esku-hartzearen prozedura orokorra**

Hirugarren praktikaldia 2019ko azaroaren 4an hasi zen. Hainbat astez ikasle guztiak aztertu eta irakasle desberdinekin hitz egin ondoren, ikusi zen AEN duten haurren inguruko arazo bat planteatzen zela. Une horretan erabaki zen ideia ona izan zitekeela gorputz adierazpeneko hainbat saio desberdin diseinatzea, antzerki aplikatuari lotuak.

Horretarako, diagnostikoari buruzko ikerketa bat egin zen, ikasgela batean edo antzerki saio batean nola trata daitekeen jakiteko. Irakasleak aztertu ondoren, bai irakasleekin hitz eginez bai behaketa lana eginez, esku-hartze bat planteatu zen 10 saio diseinatu, horietan ikasleen ezaugarrietara egokitutako jarduerak bilduz.

Lehenik eta behin, saioak aurrera eramanez aurretik, aurretik bat egin zitzaion 4 ikasleen tutore eta gorputz-hezkuntzako irakasleei. Proba hori 2019ko abenduan egin zen. Ebaluazio horretan, 3 arlo eta dagozkien eremuak eta adierazleak hartu ziren kontuan:

### 1. Komunikazioa

- Entzutea eta ulertzea
- Hitz egiten du
- Irakurketa eta idazketa

### 2. Gizarte-trebetasunak eta harremanak

- Besteekiko harremanak

-Jolasten eta aisialdia erabiltzen

-Egokitzapena

### 3. Jarduera fisikoa:

-Motrizitatea

-Gaitasun fisikoak

Ondoren, esku-hartzearen sekuentzia didaktikoa aurrera eramanean zen 2020ko urtarriletik martxora. Guztira 50 minutuko 8 saio egin ziren, ostegunero arratsaldeko lehen orduan, ikastetxeko psikomotrizitate gelan. Aipatu beharra dago, ikasleen PTak saio guztietan parte hartu zuela eta beti presente egon zela.

Martxoaren erdialdean, planteatutako esku-hartze proiektua aurrera eramanean ondoren, bigarren ebaluazio bat, test- ondokoa, bidali zitzaizkien irakasleei, bi hilabete horietan ikasleen eguneroko bizitzan saioek izandako eraginkortasuna ebaluatzeko.

Aipatutako galdeketez gain, behaketarako erregistro fitxa bat diseinatu zen, praktikaturiko saioen erregistrorako erabili zena. Bertan, jardueren izena, data, erabilitako materiala, denbora, emaitzak eta oharrak erregistratu ziren. Hortaz aparte, ikasleen autoebaluaziorako test bat diseinatu zen, haien sentipenak eta emozioak aztertzeko, eta erregistratzeko.

### **5. 3. Saioak aurrera eramateko erabilitako metodologia**

Sekuentzia didaktikoaren helburua antzerkiaren bidez gaitasun desberdinak lantzea izan zen, gizarte-, komunikazio- eta motrizitate-trebetasunen arloetan. Helburu nagusi hauek programatu ziren: entzutea, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta memorizazioa lantzea, trebetasun sozialak sustatzea, sentimenduez jabetzea eta irudimena eta sormena sustatzea.

50 minutuko saio bakoitzaren egitura hau zen: gorputza pixka bat berotu eta aktibatzea, joko nagusi bat edo bi burutzea eta saioa amaitzeko erlaxatzea. Talde-dinamiken garapena, neurri handi batean, parte-hartzaileen ezaugarrien eta arrisku- eta babes-faktoreen arabera izango da, horregatik da hain beharrezkoa hasierako ebaluazioa, beharrak antzeman eta lehenestearen etapa. Horrela, batez ere esku-hartzeko programa denez, jardueren planifikazioa sistematikoa eta gidatua izango da, eta nolabaiteko malgutasuna emango zaio edozein ustekaberen aurrean, sormen-, irudimen- eta inprobisazio-dosien aurrean, betiere kontuan hartuta, ahal den heinean tailerreko errutinetan egin daitezkeen jarduerak, horien iraupena eta aldaketak aurreratu

behar ditugula. Saio guztiek antzeko egitura izango dute, hurrei segurtasuna emateko. Saioak bukatutakoan, batzar bat edo une bat eskainiko zaio gogoeta gidatuari. Bertan, taldearekin zer jarduera egin diren, nola sentitu diren eta sortu diren arazo tekniko edo afektiboak azalduko da. Prozesu hori guztia PTaren bidez gidatuko da. PTA bitartekari izango da elkarriketarako eta garapen pertsonalerako une honetan.

Saioak zuzentzen dituen pertsonak jakin behar du zer den AEN eta nola lan egiten den kolektibo horrekin; adibidez, jarraibide zehatzak eta errazak ematea, beharrezkoa den guztietan alde aurreko gizarte-gidoiekin lan egitea, akatsik gabeko ikaskuntzaren hipotesiarekin lan egitea; hau da, hasieran ematen diren laguntzak pixkanaka erretiratuz. Bestetik, beren intereseko gaiak lanean ari direnean mugatzea, beren azalpenak argiak izatea eta esaten ari denarekin bat datozen aurpegiko adierazpideak, jolasaren bat, azaldu behar die. Azkenik, sormen-kezkak ere sustatu behar ditu, aktiboki parte hartu eta proposamenak lehen pertsonan probatu (Caride eta Vieites, 2006).

Saioetan erabili diren oinarri metodologiko kognitiboak gorputz hezkuntzari lotuta daude, gorputz adierazpena eta komunikazioa curriculumaren konpetentzia motorren barruan sartzen direlako. Saioetan zehar honako oinarriak jarri dira martxan: **arazoen ebazpena, irakas- giroa eta aurkikuntza gidatua**. Aurrera eramandako saioetan, hiru metodologiak gorputz-hezkuntzara bideratuta egongo dira, hasieran proposatutako hiru helburuak horien bidez bateratzen saiatuko baitira.

Irakaskuntza kognitiboaren estiloak psikologia kognitiboan oinarritzen dira, Bruner, Piaget, Vygotsky eta Ausubelen ikerketetatik abiatuta. Ikaskuntza errepikakor eta erreproduzitzaileren aurrean, ikaskuntza aktibo eta esanguratsua sustatzen saiatzen da, mugimenduaren ikerketaren eta esperimendazioaren bidez, eta horrek erabakiak ikasleari helarazten dizkio, haren prozesuak erraztuz. Mota horretako estiloek ezaugarri hauek sortzen dituzte: ikaslea hasieratik lanean integratzea, aurkitzen dituen zailtasunekin eta egiten diren aurrerapenekin bat datorren laguntza-maila ematea, eta gradualki desagertu beharko litzatekeen aldi baterako laguntza eskaintzea (Jordan, 2004).

Estilo horien artean, **arazoen ebazpena** dago. Honen helburua da ikasleak erantzuna bere kabuz aurkitzea, irakaslea edozein dela ere. Horregatik, estilo horrek irakaskuntza-estiloen mailarik aurreratuena adierazten du, irakasleak arazoen diseinuan baino ez baitu mendekotasunik. Beste estilo batzuetatik bereizten duena zuzeneko emaitzak dira, kasu honetan emaitza posible bat baino gehiagorekin. Ikaslearen

ikerketaren bidez, irakasleak proposatzen dituen arazoak konpondu nahi dira. Nabarmentzekoa da estilo horrekin ez dela eredu jakin bat bilatzen, aurkitutako erantzun guztiak baliozkoak direlako (Hernandez Nieto, 2009). Ikaskuntza motelagoa den arren, barneratutako edukiak finkoagoak eta trinkoagoak dira, eta ikasleek motibazio handiz lortzen dituzte.

Planteatutako arazoak edo jarduerak ikaslearen esperientziara, jarrerara eta interesera egokitu behar dira, hau da, esanguratsuak izan behar dute; izan ere, arazoak ebazteko asmoa ez da alde aurretik ezagutzen diren erantzunak errepikatzea. Hori dela eta, irakasleak jakin behar du zein den ikasleen maila, jarduerak egoki doitzeko. Prozesu horrek aurrera egin ahala, ikasleak indibidualizazio maila handiagoa lortzen du alderdi guztietan, eta gero eta autonomoagoa da egoera berriei aurre egiteko eta ikastaldian sortzen diren arazoak konpontzeko (Jordan, 2004).

Laburbilduz, hauek dira arazoen ebazpenean oinarritutako irakaskuntza estiloaren helburuak:

1. Ikaslearen gaitasun kognitiboa lantzea ematen diren arazoetan erantzun posible ezberdinak emateko.
2. Ariketa baten estruktura ikastea, bere berezitasunak ulertuz, arazo baten bitartez hauek ulertzeko.
3. Ohikoak diren erantzunetatik aparte haratago joateko seguritatea eta konfiantza lortu.
4. Erantzunak baieztatzeko gaitasuna lantzea eta ebazpen zehatzerako erabiltzea.

Bestetik, **aurkikuntza gidatuarekin** batera ikerkuntza teknika edo mugimenduen sorkuntzan erabiltzen duten estiloen barruan kokatzen gara, non ikasleari, arazoen ebazpenean aipatu den bezala, inplikazio kognitiboa eskatzen zaion. Estilo hau metodo inductiboan kokatu daiteke ikaslearen ardura delarik ekintza burutzeko era bilatzea. Hala, hau ez da aginte zuzenean oinarritzen baizik eta aurkikuntza bidezko ikaskuntzan, eta ikasleak irakasleak planteatutako soluzioa aurkitu behar du ikaskuntzaren protagonista izanik eta jarrera aktiboa hartuz, nahiz eta ikaskuntzak motelagoak izan eta irakaslearen formazioa eskatu.

Irakasleak ikaskuntzaren orientatzaile gisa funtzionatzen du, ikaslea, berriz, irakasleak proposatutako arazoaren aurrean ikerkuntzaren bidez konponbide bat bilatzen saiatuko da, izan ere, irakasleak ez dio erantzuna emango (Saenz Lopez, 1997).

“Estilo honen garapena gaiaren zehaztapenarekin hasten da, hau da, ikaskuntzaren objektuarekin” (Contreras, 1998, 289 or). Metodo hau “jolasekin” alderatu daiteke, irakasleak jarduera proposatuz eta ikasleek haien erara moldatu behar dutelarik. Irakasleak aldezturik prestaturiko egoerak, azkeneko emaitzetara eramango ditu ikasleak. Ikasleen erantzunak beti errefortzu batekin lagundu beharko dira, ikaslea gidatzeko erabilgarria izango dena. Garrantzitsua da irakasleak pazientzia edukitzea eta ikaslearen erritmoa errespetatzea (Posada, 2000).

Laburbilduz, hauek dira aurkikuntza gidatuaren irakaskuntza estiloaren helburu nagusiak:

1. Irakasleak denbora hartzen du saioa planifikatzen eta sekuentziazioa egokia planteatzen.
2. Irakasleak berria den irakaskuntza estiloa aurrera eramateko nahia du. Aurreko estiloak errazak dira irakaslearentzako, baina aurkikuntza gidatuak irakaslearen gaitasun handiagoa eskatzen du. Irakaslearen ardura oso altua da.
3. Irakasleak ikaslearen gaitasun kognitiboan konfiantza du.
4. Irakasleak pazientzia izango du ikaslearen erantzunaren zain. Ikasleak behar adina denbora itxarongo du.
5. Ikaslea aurkikuntza txikiak egiteko gai izango da, kontzeptu edo helburu baten lorpena bultzatuko duena.

Prozesuan erabilitako azkeneko metodologia **irakas- giroa** izan da. Mugimenduen koordinazio globalaren eta funtsezko gaitasunen garapena bultzatzeko metodologiarik interesgarrienetako eta berritzaileenetako bat dira irakas- giroak (Barrachina, 2016). Hezkuntza aukera metodologikoa izan daitezke, non irakaslea hezkuntza-denbora, materialena eta praktika sortzen duen, ikasleak modu askean eta berez parte har dezan bultzatuz. Honetan ikaslea bere ikaskuntza bere kabuz eraikiko du eta bere pentsamendu sortzailea garatu ahal izango du. Metodologia hori pedagogia konstruktibistan eta kooperatiboan oinarritzen da, eta jolas librea erabiltzen du ikasteko bitarteko gisa. Ikuspegi horretatik, ikasleak euren ikaskuntzaren eraikitzaileak dira, eta irakasleak prozesu horretan gidari, bitartekari eta estimulatzailerik lanak egiten ditu. (Barrachina, 2016).

Ikasleek proposaturiko baldintza espazialei eta materialei erantzuteko soluzio ezberdinak bilatuko dituzte, nahi duten erara, garatu beharreko edukia zehazteko. Gainera, bizitako praktika sozio-motor baten bidez probatuko dituzte konponbideak

bilatzeko. Irakasleak berriz, erantzun egingo die saioan sor daitezkeen gorabeherei. (Guillamón, Cantó eta Soto, 2017)

Garatu beharreko edukiei dagokienez, interesgarria izan liteke ingurunea diseinatzea landu nahi diren funtsezko gaitasunen arabera. Praktika fisikoaren iraupen osoa irakasleak ezartzen du eta ikasleek libreki erabakitzen dute giro bakoitzean parte hartzeko denbora. Parte hartzeko arauak ezarriko dira instalazioen eta materialen erabilerari eta bizikidetzara arauak dagokienez (Guillamón, Cantó eta Soto, 2017).

Irakas-giroen irakaskuntzak parte hartzeko jarduerak proposatzen ditu, taldeko ikasleen praktika fisikoa bultzatu nahi duen ikaskuntza-egoera batetik abiatzen dena. Jarduera motibatzailea ere bada, ikasleen interesean eraikitzen baita eta ikasleak euren ekimenez eta askatasunean jolasten baitira. Azkenik, proposamen aktiboa da, Gorputz Hezkuntza dinamikoago baterako estrategia metodologikoak kontuan hartuta diseinatzen baita (Guillamón, Cantó eta Soto, 2017).

## 6. Sekuentzia didaktikoa

### 6.1. Partaideak

Unitate didaktikoa AEN duten lau ikaslerekin (bi neska eta bi mutil) garatu zen. Ikasle horiek 7-9 urte bitarteko adina zuten eta aldian-aldian joan ohi dira, ostegunetan, arratsaldeko 15:00etan, jarduera bateratu batera, haien PTarekin. Bertan haien beharretara egokitutako jarduerak eskaintzen zitzaizkien. Lau ikasleek Autismoaren Espektroko Nahasmena pairatzen zuten, gradu desberdinetan. 1 Taulan jardueran parte hartu duten ikasleen datu batzuk jaso dira.

	<b>Adina</b>	<b>Sexua</b>
<b>Ikasle 1</b>	7 urte	Mutila
<b>Ikasle 2</b>	8 urte	Neska
<b>Ikasle 3</b>	8 urte	Neska
<b>Ikasle 4</b>	9 urte	Mutila

Taula 1. Parte hartzaileen datuak.

Sekuentzia didaktikoa aurrera eramateko orduan, lehenengo momentutik ikastetxe eta familien baimena eskatu eta ziurtatu zen. Ikasle bakoitzari zenbaki bat eskaini zitzaion, haien datuak tratatzerako orduan konfidentzialtasuna mantentzeko.

Bestetik, bermatu zen informazioa Gradu Amaierako Lanerako datuak eta jarduerak burutzeko bakarrik erabiliko zela.

## 6. 2 Saioen sekuentziak eta landuko diren gaitasunak.

Guztira 50 minutuko 10 saio diseinatu ziren. Saioak ikastetxeko psikomotrizitate gelan eraman ziren aurrera. Saio bakoitzean antzerkiko gai bat edo estilo bat jorratuko da, arestian aipatutako helburuak landuz. Jarraian, saioen sekuentziak eta sekuentzia didaktikoan landuko diren gaitasunak, edukiak eta osagaiak azalduko dira 2 eta 3 tauletan. Jarduera bakoitzaren deskribapenak, saio fitxetan daude (ikus 2. Eranskina).

SAIOEN SEKUENTZIAZIOA		
SAIOAK	JARDUERAK	IRAUPENA
<u>1. Musikarekin nire gorputza mugitu!</u>	1. ANTZERKIAN ESKU HARTU 2. DANTZATZERA! 3. SUGE DANTZARIAK 4. LASAITASUNERA BUELTA	1. 10 minutu 2. 15 minutu 3. 15 minutu 4. 10 minutu
<u>2. Saioa: II. Musikarekin nire gorputza mugitu!</u>	1. SAIOAREN AURKEZPENA 2. DANTZATZERA! 3. EGOERAK IRUDIKATU! 4. LASAITASUNERA BUELTA	1. 10 minutu 2. 15 minutu 1. 15 minutu 2. 10 minutu
<u>3. Konfiantza garatzen antzerkian</u>	1. SAIOAREN AURKEZPENA 2. ERORKETA 3. URTU BIKOTEKA! 4. LASAITASUNERA BUELTA	1. 10 minutu 2. 10 minutu 3. 15 minutu 4. 10 minutu
<u>4. Animaliak antzezten</u>	1. SAIOAREN AURKEZPENA 2. ELEFANTEAREN DANTZA 3. HIENAREN DANTZA 4. TXIMINOAREN DANTZA 5. LASAITASUNERA BUELTA	1. 10 minutu 2. 10 minutu 3. 10 minutu 4. 10 minutu 5. 10 minutu
<u>5. Ni eta nire gorputza</u>	1. SAIOAREN AURKEZPENA 2. OINEZ! 3. KONTUZ! 4. LASAITASUNERA BUELTA	1. 10 minutu 2. 10 minutu 3. 15 minutu 4. 10 minutu

<u>6. Zirkua</u>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. SAIOAREN AURKEZPENA</li> <li>2. IRAKAS GIROAN JOLASTU! <ol style="list-style-type: none"> <li>1. TXOKOA: Orekariak gara!</li> <li>2. TXOKOA: Akrobaten moduan!</li> <li>3. TXOKOA: Malabareak</li> <li>4. TXOKOA: Pailasoak</li> </ol> </li> <li>3. LASAITASUNERA BUELTA</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 10 minutu</li> <li>2. 30 minutu</li> <li>3. 10 minutu</li> </ol>
<u>7. Mimika antzerkian</u>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. SAIOAREN AURKEZPENA</li> <li>2. NORTZUK GARA?</li> <li>3. NOLA SENTITZEN NAIZ?</li> <li>4. LASAITASUNERA BUELTA</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 10 minutu</li> <li>2. 15 minutu</li> <li>3. 10 minutu</li> <li>4. 10 minutu</li> </ol>
<u>8. Antzerkiaren prestaketa</u>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. SAIOAREN AURKEZPENA</li> <li>2. GIDOIA IRAKURTZEA</li> <li>3. PERTSONAIAK BANATZEA ETA MARRAZTEA</li> <li>4. LASAITASUNERA BUELTA</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 10 minutu</li> <li>2. 15 minutu</li> <li>3. 15 minutu</li> <li>4. 10 minutu</li> </ol>
<u>9. Antzerkia entseatu</u>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. SAIOAREN AURKEZPENA</li> <li>2. ARNASKETA</li> <li>3. GIDOIA IKASTEA ETA ENSEATZEA</li> <li>4. LASAITASUNERA BUELTA</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 10 minutu</li> <li>2. 5 minutu</li> <li>3. 25 minutu</li> <li>4. 10 minutu</li> </ol>
<u>10. Antzerkia entseatu</u>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. SAIOAREN AURKEZPENA</li> <li>2. ARNASKETA</li> <li>3. GIDOIA IKASTEA ETA ENSEATZEA</li> <li>5. LASAITASUNERA BUELTA</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. 5 minutu</li> <li>2. 5 minutu</li> <li>3. 40 minutu</li> <li>4. 5 minutu</li> </ol>

Taula 2. Saioen sekuentziak.

Diseinatutako sekuentzia didaktikoak oinarritzeko zehar nahiz diziplina barneko kompetentzia bat baino gehiago lantzen du, baina martxan jarritako esku-hartzean hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioaren nahiz elkarbizitzarako zehar kompetentziei eta diziplina barneko kompetentzia motorrari erreparatu zaie, espezifikoki.



Oinarrizko Zehar Konpetentziak		
Oinarrizko zehar konpetentziak: Elkarbizitzarako konpetentzia		
KONPETENTZIAREN DEFINIZIOA (Heziberri, 2020)	OSAGAIAK (Heziberri, 2020)	ADIERAZLEAK
<p>Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.</p>	<p>1. Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezzen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.</p>	<p><b>Jakin (kontzeptualak):</b> Sentimenduen inguruko oinarriak ezagutzen ditu bereak zein besteenak identifikatuz.</p> <p><b>Egiten jakin (prozedurazkoak):</b> Bere sentimendu, pentsamendu zein nahiak egiaz eta, aldi berean, solaskidea errespetatuz adierazteko ahalmena erakusten du hauek bermatzeko ahaleginak eginez.</p> <p><b>Izaten jakin (jarrerazkoak):</b> Besteen sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak errespetuz entzuten ditu enpatia eta asertibitatea erakutsiz.</p>
	<p>2. Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.</p>	<p><b>Jakin (kontzeptualak):</b> Lankidetzan aritzeko oinarriak identifikatzen ditu.</p> <p><b>Egiten jakin (prozedurazkoak):</b> Eginkizuna lortzera begira talde txiki zein handitan lan egiten du erantzukizunak partekatuz, elkarlanean arituz eta elkarri laguntzeko konpromezua erakutsiz.</p> <p><b>Izaten jakin (jarrerazkoak):</b> Lankidetzan aritzeko kideenganako errespetua, konpromezua, eta elkarren arteko laguntza erakusten du arauak ezarriz, errespetatuz eta hauen betekuntza bermatuz.</p>

Diziplina barneko Oinarrizko kompetentziak: Konpetentzia motorra		
KONPETENTZIAREN DEFINIZIOA (Heziberri, 2020)	OSAGAIK (Heziberri, 2020)	EDUKIAK
<p>Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.</p>	<p>1. Gorputza naturaltasunez edo intentzioz erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko (Heziberri, 2020).</p>	<p><b>Jakin: (Kontzeptualak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren bidezko komunikazio kontzientzia.</li> <li>- Hausnarketarako gaitasuna.</li> <li>- Mimika eta dramatizazioa.</li> </ul> <p><b>Egiten jakin: (Prozedurazkoak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sormeneko jarduerak.</li> <li>- Azken emanaldia.</li> </ul> <p><b>Izaten jakin: (Jarrerazkoak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarlana.</li> <li>- Adierazpena hobetzeko jarrera.</li> <li>- Norberaren adierazpen mailaren onarpena.</li> <li>- Elkarrekiko errespetua.</li> <li>- Ahalegina, parte hartze aktiboa eta jarrera positiboa.</li> </ul>

Taula 3. Sekuentzia didaktikoaren gaitasunak, edukiak eta osagaiak.

### 7. Emaitzak

Lortutako emaitzak hiru motatako ebaluazioen bitartez bideratu dira. Ebaluazio horiek esku-hartzearen prozesuan zehar eta prozesuaren ondoren egin ziren. Hiru ebaluazioak ikasleen prozesua eta ikasleek lortutako emaitzak ebaluatzeko diseinatu ziren. Ebaluazioetako bat 4 ikasleen tutore eta Gorputz Hezkuntzako irakasleei eman zitzaion; bigarrena, saioetan nirekin zegoen PTak eta nik neuk egiten genuen saio bakoitza amaitu ondoren, eta azkena, berriz, autoebaluazio bat izan zen, ikasleek haien burua ebaluatzeko.

Lortutako emaitzen analisiarekin hasteko, tutoreei egindako galdeketan zentratuko gara. Sekuentzia didaktikoa aurrera eramanez, tutoreei eta gorputz hezkuntzako irakasleei ebaluazio bat betetzeko eskatu zitzaion, ikasle bakoitzaren

ezaugarriak ebaluatu zitzaten, hiru eremutan haien beharrak kontuan hartuta. Eredu horiek **komunikazioa, harremanak eta jarduera fisikoa** izan ziren. Saiok egin ondoren, ebaluazio-fitxa berberak eman zitzaizkien irakasleei, progresio bat egon ote zen ala ez ikusteko.

Oro har, lau ikasleek hobera egin zuten esku-hartze aurreko testaren eta ondokoaren artean. 4, 5 eta 6. tauletan ageri dira eremu bakoitzean lortutako emaitzak:

<b>KOMUNIKAZIOA</b>	Entzutea eta ulertzea		Hitz egiten du		Irakurketa eta idazketa	
	Aurre-test-a	Post-test-a	Aurre-test-a	Post-test-a	Aurre-test-a	Post-test-a
(0-10) Tutorea						
IKASLE 1	6'5	7	7	8	5	5
IKASLE 2	7	7'5	8	8'5	7'5	8'5
IKASLE 3	4	5	4'5	5	4	4'5
IKASLE 4	8	8	8	8'5	8'5	8'5

Taula 4. Komunikazioari lotutako emaitzak.

<b>GIZARTE TREBETASUNAK ETA HARREMANAK</b>	Besteekiko harremanak		Jolasten eta aisialdia erabiltzen		Egokitzapena	
	Aurre-test-a	Post-test-a	Aurre-test-a	Post-test-a	Aurre-test-a	Post-test-a
(0-10) Tutorea						
IKASLE 1	5	6'5	6	7	6	7
IKASLE 2	7	8	8	8'5	8	8'5
IKASLE 3	3	4'5	4	5	4	5
IKASLE 4	7	8	7	8	7'5	8


Taula 5. Harremanei lotutako emaitzak.

JARDUERA FISIKOA	Motrizitatea		Gaitasun fisikoak	
	Aurre-test-a	Post-test-a	Aurre-test-a	Post-test-a
(0-10) Tutorea				
IKASLE 1	6	6	6	6'5
IKASLE 2	8	8'5	8'5	8'5
IKASLE 3	5	6	5	6
IKASLE 4	8'5	8'5	8'5	9


Taula 6. Jarduera fisikoari lotutako emaitzak.

Bestalde, saio bakoitzaren ondoren koebaluzio bat bete egin zen, saioetan parte hartu zuen PTarekin batera. Ebaluzio horietan ikasleen jarrera edo portaera kontuan hartu egin zen, hiru eremuak edo arestian aipatutako hiru arloak aintzat hartuta: komunikazioa, gizarte trebetasunak eta jarduera fisikoa. Aurreko testetan bezala, honetan ere 0tik 10era ebaluatu zen.


1, 2 eta 3. grafikoetan ikusten denez, 4 ikasleek, oro har, eremu guztietan hobera egin zuten saioek aurrera egin ahala, nahiz eta hasierako maila desberdina izan kasu bakoitzean.



1. Grafikoa. Ikasleen progresioa saioetan komunikazio eremuan.



2. Grafikoa. Ikasleen progresioa saioetan harreman eremuan.








3. Grafikoa. Ikasleen progresioa saioetan JF ereremuan.






Bestetik, saio bakoitzeko azken 10 minutuetan autoebaluazio bana eman zitzaien ikasle bakoitzari. Egun edo saio horretan nola sentitu ziren markatzeko eskatu zitzaien. Horretarako, 5 piktograma erabili ziren emozio desberdinekin, errazagoa izan zedin. 7, 8, 9 eta 10 tauletan jaso dira ikasle bakoitzak 8 saiotan lortutako emaitzak.

IKASLE 1					
1. SAIOA			X		
2. SAIOA			X		
3. SAIOA		X			
4. SAIOA				X	
5. SAIOA		X			
6. SAIOA	X				
7. SAIOA			X		
8. SAIOA		X			






Taula 7. Ikasle 1aren emaitzak.

IKASLE 2					
1. SAIOA			X		
2. SAIOA		X			
3. SAIOA		X			
4. SAIOA		X			
5. SAIOA	X				
6. SAIOA	X				
7. SAIOA	X				
8. SAIOA		X			

Taula 8. Ikasle 2ren emaitzak.

IKASLE 3					
1. SAIOA				X	
2. SAIOA				X	
3. SAIOA			X		
4. SAIOA			X		
5. SAIOA		X			
6. SAIOA	X				
7. SAIOA		X			
8. SAIOA		X			

Taula 9. Ikasle 3ren emaitzak.

IKASLE 4					
1. SAIOA			X		
2. SAIOA		X			
3. SAIOA					X
4. SAIOA		X			
5. SAIOA	X				
6. SAIOA	X				
7. SAIOA	X				
8. SAIOA	X				

Taula 10. Ikasle 4ren emaitzak.

## 8. Ondorioak

Esku-hartzea amaitutakoan, lortutako emaitzak aztertu ziren, aurretiaz egindako hipotesia kontuan hartuz. Hipotesi horretan baieztatzen da antzerki praktikak AEN diagnostikoa duten haurrentzat lagungarriak direla. Horretarako hiru helburu hartu ziren kontuan: haurren gizarte- trebetasunak, komunikazioa eta motrizitatea lantzea eta bestetik, haien bizi kalitatea eta hezkuntza hobetzearen azken helburu orokorra. Hori guztiori gorputz adierazpenean fokua ipintzen zuten antzerki praktiken bitartez, AEN diagnostikoa duten lau ikaslerekin. Saioak aurrera eramateko hiru metodologia mota erabili ziren: arazoaren ebazpena, aurkikuntza gidatua eta irakas-giroak hain zuzen, guztiak ere gorputz hezkuntzara bideratuak.

Lehenik eta behin, jarduerak programatzeko, kontuan hartu ziren irakasleei sekuentzia hasi aurretik emandako ebaluazioetan lortutako emaitzak, eta horietatik abiatuta hautatu ziren esku-hartzearen hiru helburu-arloak. Beraz, sekuentzia didaktikoa egiteko kalkulaturako denboraren barruan, esku-hartzea jarduera fisikoaren bidez alderdi hauek lantzerantz bideratu da: komunikazioa, gizarte trebetasunak eta motrizitatea. Ikasleekin alderdi horiek lantzeko zortzi saio egin ondoren, irakasleek egindako esku-hartzearen osteko testean nahiko emaitza positiboak lortu ziren, gehienetan ikasleek puntuazio altuagoak lortu baitzituzten hiru eremuetan.

Aipaturako saio horiek diseinatzeko jadanik gauzatutako ikerketak erabili dira. Azpimarratzekoa da azterlan bakoitzean hainbat antzerki teknika lantzen direla, eta, itxuraz, teknika horiek eraginkortasun handiagokoak edo txikiagokoak dira ikasle laginaren ezaugarrien arabera. Kasu honetan, lau ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta, aurretiazko ikerketetan eraginkorrak izan diren hainbat teknika aukeratu dira; hala nola, inprobisazio jolasak edo irakas giroak. Gizarte-gaitasunak, ikaskuntza, lankidetzeta eta inprobisazioa lantzeaz gain, erlaxazio-teknikak erabili dira azterketa honetan, arnasketaren eta soinuen bidez, eta horrek tentsioak eta urduritasuna gutxitzen lagundu die ikasleei.

PTarekin batera saio bakoitzaren amaieran egindako behaketei dagokienez, esan behar da ikasleek hobekuntza handia lortu zutela, 1., 2. eta 3. grafikoetan ikus daitekeenez, lau ikasleek progresio-lerroa handitzen baitute. Hala ere, ikusten da ikasle batzuek gorabehera handiak izaten dituztela saio batzuetan. Hori, normalean, kanpoko arazoekin etortzen zirenean edo egun txarra zutenean gertatzen zen, kanpo-faktoreek



eragin handia baitzuten saioetako jarreretan. Hala ere, laurek jarrera eta ezarritako helburuak hobetu zituzten, kanpoko faktoreak kontuan hartu gabe.

Saio bakoitzaren amaieran ikasleek egindako autoebaluazioei erreparatuz, ikasle bakoitza egun horretan nola sentitzeen zen aztertu dugu. 5 emozio adierazten zituzten 5 piktogramako ebaluazioa eman zitzaien. Emozio hauek lehen egunean aztertu ondoren, ikasleek erraz zekiten zein markatu nahi zuten. Lehenengo saioen emaitzak irakurrita, segurtasun eza eta lotsa izan ziren protagonistak, baina egunak aurrera zihoazela, emaitzetan ikus daitekeenez, beren buruarengan konfiantza hartzen eta hobeto sentitzen hasi ziren. Autoebaluazio horietan erraz ikus daiteke kanpoko faktoreek zerikusi handia izan zutela emaitzetan. Hau da, ikasleak saiotik kanpoko arazoren batekin etortzen baziren edo egun txarra besterik ez bazuten, berehala islatzen zen beren jarreretan. Hala ere, laurek hobekuntza nabaritu zuten eta saioak aurrera egin ahala hobeto sentitu ziren.

Jarduerez eta saioetaz harago, honako emozio hauek ere hauteman ahal izan dira: gogo-berotasuna (irribarreak, txaloak), lana osatzeko ardura ("ez zait ateratzen"), jakin-mina (klasea hasi aurretik irakaslearengana hurbiltzea, zer egingo duten ikusteko), pena (negarra edo tristura-adierazpenak), antsietatea (mugimendu tereotipatuak, nahigabe handiz ibiltzea). Emozioak adierazteko gaitasuna hobetzeaz gain, azpimarratzekoa da haurrek taldekideekin enpatizatzea lortu zutela; hau da, pertsona bat triste edo gogaikarri dagoenean identifikatzea eta harekin arduratzeko trebetasunak garatzea, nahiz eta emozioa zehaztu ezin izan.

Komunikazioari dagokionez, sekuentzian parte hartu dutenen ikasleek eta haien eguneroko klaseen arteko elkarrekintzen maiztasuna handitu egin dela hauteman da, bereziki, ikasleek intereseko elkarrizketa gai bat proposatzen dutenean, izan ere, irakasleek azpimarratu dute klaseetan gehiago parte hartu dutela azken hilabetetan. Kontuan izatekoa da, arriskuan dauden gazteen komunikazio gaitasunak garatzeko ikaskuntza estrategiak aintzat hartu eta landu beharreko erronka direla, diziplina anitzeko ikuspegitik eta hainbat testuingurutan (Jimenez, 2001). Kasu honetan, erabilitako metodologiak, oro har, taldekideekin interakzio handiagoa izaten lagundu duela ikusi da.

Beraz, aurreko beste ikerketa batzuetan bezala, hala nola Corbett-ek (2011) edo Hartigan-ek (2012) aurrera eramandakoak, ondoriozta dezakegu antzerkia oso tresna

eraginkorra dela haur eta nerabeentzat, eta zer esanik ez AEN dituztenentzat. Horregatik, horrelako ikasleekin mota honetako jarduerak sustatu beharko liriateke eskolan; izan ere, banaka nahiz sozialki hobetzen laguntzen diela agerikoa da, pertsona gisa hazten uzteaz gain, askotan kudeatzen ez dakizkiten alderdiak eta sentimenduak aurkitzen lagunduz.

Lan honetatik ondoriozta dezakegu antzerki teknikak eta gorputz adierazpen jarduerak eginez emaitza positiboak lortu ditugula, eta, beraz, egiaztatu dugu horrelako jarduerak AEN duten ikasle horien harremana eta egokitzapena hobetzen dituztela. Aipatutako onurak kontuan hartuta, lortu beharreko hurrengo pausoa da beste esparru batzuetan lantzen diren trebetasunak orokortzea; esaterako, klasean, jolas-orduan, eskolaz kanpoko ekintzetan, etab. Eta une bakoitzean zer sentitzen duten eta sentimendu horien aurrean nola jokatu nahi duten konturatzeaz gain, munduarekin enpatizatzen eta arrakastaz harremanetan jartzen ikastea.

### 9. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Kontuan izan behar dugu egindako esku-hartzeak zenbait muga eta hobekuntza behar dituela, etorkizunean egingo diren ikerketa edo proiektuetarako kontuan hartu beharrekoak.

- ❑ **COVID- 19:** Aurten, COVID-19 delakoaren ondorioz, eskolak martxoaren 9an eten ziren. Lehen esan bezala, esku-hartzeak 10 saio zituen guztira, 4 ikasleek antzezten zuten azken antzerkia kontuan hartu gabe. Ikasturtea bertan behera utzi zela jakin ondoren, saioak amaitu behar izan genituen, eta zortzi saio bakarrik egin genituen. Post- ebaluazioak irakasleei bidaltzean, harremanak telematikoak izan ziren, eta feedback on bat jasotzea zailagoa izan zen. Tartean ziren irakasleek lagundu eta parte hartu zuten inguruabarrak kontuan hartu gabe, eta hori kontuan hartu behar da, egoera askoz konplexuagoa baitzen.
- ❑ **Esku-hartzearen iraupena:** egindako saioak laburrak izan daitezke. Zortzi saiotara behar izan da, eta ikusi ahal izan den bezala, emaitzak oso txikiak izan dira, nahiz eta ikasle guztiek hobekuntza positiboa izan. Agian, ikasturte osoan zehar egingo balitz aldaketa askoz ere positiboagoa izan liteke.
- ❑ **Behatu ezin diren alderdiak ebaluatzeko zailtasuna:** Gizarte-trebetasunek behar daitezkeen portaerak eskatzen dituzte, baina baita pentsamendu eta emozioenak ere, eta horiek, Rocaren arabera (2003), pertsonen arteko harreman

egokiak izaten eta besteek gure eskubideak errespetatu dituzten eta gure helburuak lortzea eragotz ez diezaguten laguntzen digute. Behatu ezin diren alderdiak sartzeak zaildu egiten du horien ebaluazioa, eta are zailagoa gertatzen da esku-hartze programa baten eraginkortasuna frogatzea.

- **Ikasleen jarrera:** AEN duten pertsonen ezaugarriak direla eta, egun batzuetan urduriago egoten dira, edo oso nekatuta sentitzen dira, eta hori dela eta, egun batzuetan gogorik gabe sentitzen ziren jarduerak egiterako orduan. Saiotetan hainbat jardura tartekatzen saiatu da, aspergarriak edo errepikakorrak irudituko ez bazaizkie ere, baina, hala ere, oso zaila zen egun horretan nola egongo diren asmatzea, eta, beraz, uste dut egokia izango zela saio bakoitzerako proposatutakoak baino jardura gehiago eramatea, hartara, gelako dinamikari pixka bat jarraitu ahal izateko eta aldaketa nabariak ez egiteko.

#### Etorkizuneko ikerketa-ildoak.

Lan hau egin ondoren, ikerketa bide berriak irekitzen dira, eta interesgarria litzateke horiek aztertzea. Lehenengoa esku-hartze programa denbora gehiagoz luzatzea da, eta epe luzeko jarraipena egitea, programa denborarekin eraginkorra den edo hobekuntzak epe laburrean bakarrik egiten diren egiaztatzeko.

Sekuentzia didaktikoa hau egiteko orduan, esku-hartzearen kideek zenbait behar partekatzen zituztelako errealitatek abiatu zen, talde homogeneoa zen, deskribatutako sintomatologiagatik. Hurrengo programetarako proposamen gisa, onuragarritzat eta aberasgarritzat jo liteke talde heterogeneoak osatzea, behar berezi desberdinak dituzten pertsonekin, hain zuzen. Horrela, gaitasun edo trebetasun batzuk aurkezten edo mantentzen dituzten taldeko kideek eredu gisa balioko dute trebetasun horiek modu defizitarioan dituzten beste batzuentzat. Ildo honetatik, esku-hartze programa aberasteko, oso gomendagarria litzateke antzerki-taldea haur guztiek osatzea, hezkuntza-premia bereziren bat dutenek ez ezik, garapen tipikoa duten haurrek ere parte hartzea, haientzat ere oso gomendagarria izango lirateke eskolako taldekideekin antzerkia egitea.

Gainera, komenigarria litzateke motibazio pizgarri diren eta jakin-min handiagoa pizten duten jarduerak egitea, hala nola antzokietara txangoak egitea, antzerki-lan baten antzezpena ikusi ahal izateko eta artistek bizi duten antzerki-giroa bertatik bertara ezagutzeko. Interesgarria litzateke, halaber, hiruhileko bakoitza bukatzean antzezpen txikiren bat egitea, horrela ikasleek lanean jarraitzeko motibazio handiagoa izango lukete

eta gurasoek ikasturtean zehar egindako lana ikusiko lukete. Hala ere, horretarako, ikastetxearen eta familien laguntza beharko litzateke.

Familien laguntzarekin, programa hau beste testuinguru batzuetan ere egin daiteke, adibidez, haur horiek urtero egiten dituzten udalekuetan. Hori aukera ona litzateke ikasturtean landutako alderdi guztiak indartzeko, eta, gainera, ikaskuntzak beste ingurune batzuetara zabaltzeko. Hala, Corbett-en eta besteren (2014) azterketan bezala, antzerkiak beste testuinguru batzuetan duen eraginkortasuna azter liteke.

Azkenik, kontuan hartu behar dut GrALa egiten hastean zailtasun handiak izan ditudala datu base akademikoetan, bibliografian eta ikerketa zientifikoetan, proposatutako gai-ildoari dagokionez. Gizarte trebetasunak tratatzeko programa asko daude, baina antzerkian oinarrituta, esperientzia gutxi egin dira modu zientifikoan.

Laburbilduz, dokumentu honen bidez AEN duten pertsonen beharrei erantzuteko modua bilatzen duen ideia, iradokizun eta proposamen bat aurkezten dira. Proposatutako hipotesia kontuan hartuta, antzerkia TEA diagnostikoa duten haurren garapenerako eta laguntzarako tresna erabilgarria dela esaten da, proposatutako helburu nagusiak kontuan hartuta. Hala ere, hau lortzea ez da erraza, zenbait arlo edo espezialitatetako irakasle eta espezialistek indarrak batu behar ditugu hezkuntza integratzaileagoa lortzeko eta etorkizuneko ikerketa-ildoak sortzeko.

